

## Nekane Arratibel HUHEZIkoko dekanoa berria

2006/05/10

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Errektore Kontseiluak **Nekane Arratibel** aukeratu du **Jose Antonio Mendikute** oraingo **dekanoa** ordezkatzeko, honek uztailaren amaieran hartuko baitu erretiroa.

Nekane Arratibel Lazkaon jaio zen, Gipuzkoan, orain 38 urte, eta Antzuolan bizi da orain, ezkontuta eta 7 urteko seme batekin.

Psikologia ikasi zuen EHUn, eta bertan egin zuen doktore tesia ere (Helduen euskalduntzean eragiten duten faktore psikosozialak: motibazioaren rola). 2000ko urrian hasi zen HUHEZIn irakasle lanetan. Aurten irakatsi du Gizarte Psikologia, Garapen Psikologikoa eskola adinean eta Helduen irakaskuntza. Psikopedagogiako koordinatzailea izan da, Hizkuntzen departamenduko buru eta 3. zikloko eta ikerkuntzako arduraduna.

Ikasturte hau amaitu bitartean, Nekane Arratibelek **orpoz orpo egingo du lan** Jose Antonio Mendikuterekin, karguaren gorabeheraz jabetzeko.

